



## TRAMITAZIOAK/ LIZENTZIA ESKABIDEAK

### LIZENTZIA ESKAERA, HIRILURZORUTIK KANPO TXABISKEAK

#### ERAIKITZEKO

##### AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

Eskabide orokorra behar bezala beteta

- Harremanetarako telefono-zenbakia jarri.
- Obra zein lurzatitan eta poligonotan egin nahi den adierazi.

Exekuzio-proiektua, egin nahi diren obrak zehazten dituen, teknikari gaitu batek idatzia eta dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia. (2 ale)

Segurtasunaren eta Osasunaren gaineko oinarritzko azterlana, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuarekin bat.

Erregistratutako jabetza-eskriburaren edo lurzati zedularen fotokopia.

##### APLIKATU BEHARREKO ARAUAK:

**ALTSASUKO UDAL PLANEKO HIRIGINTZAKO ARAUDI PARTIKULARRARI BURUZKO 62.4.1 ARTIKULUAREN ALDAKETA, ZEINA 2008KO UDAL OSOKO BILKURAKO ERABAKIAREN BIDEZ ONETSI ZEN (42 ZENBAKIDUN NAO, 2008ko APIRILAREN 2koa.**

1. Eraikin hauetara sartzeko gutxieneko lurzattia 400 m<sup>2</sup>-koa izango da lurzati berrantolamendurik gabeko eremuetan eta 900 m<sup>2</sup>-koa berrantolamendu eremuetan.  
(Oharra : POT , Nafar gobernuko araudiaren arabera 1.000m<sup>2</sup> behar dira )

Eraikina lurzatiaren mugetatik gutxienez 3 m-ra atzeraeraman beharko da. Eraikinak gehienez hartzen ahal duen azalera katastroko azaleraren % 10 izango da, gehienez 45 m<sup>2</sup> (30 m<sup>2</sup>-ko txabiske motako eraikina gehi 15 m<sup>2</sup>-ko ataripea). Familia unitate bakoitzak txabiske bakarria eraiki ahalko du. Familia unitate gisa Nafarroako Gobernuak emandako kontzeptu fiskala erabiliko da.

2. Baimena lortzeko teknikari eskudun batek ikus-onetsitako proiektua aurkeztuko da.
3. Obrak bukatu ondoren obra amaierako ziurtagiria aurkeztuko da eta udal zerbitzu teknikoek bisitatu egingo dute. Udaltzaingoak aldian-aldian bisitatu egingo ditu eta arazorik izanez gero txabiskea eraitsiko da, jabearen kontura, alde zurretik zehapen-espeditentea irekita.
4. Hauek dira txabiskeak eraikitze baldintzak:
  - Eraikinak solairu bakarria izango du eta gehienez 2,50 m izango diru lurretik forjatuaren barne alderaino puntu apalenean. Eraikuntza laukizuzen edo lauki itxurakoa izango da.
  - Materiala zuriz edo kolore argi batez margotutako zarpeatua izango da. Txabiskearen fatxadaren zati batean harrizko plaken estaldura baimenduk oda (metro bateko altuerako zokaloa eta ertzak). Kanpoko zurgin lana zurezkoa edo zurezko itxura duen beste edozein materialekoa izango da (PVC, aluminioa, etab.). Estaldura bi isurialdekoa izango da, %30 eta %40 inguruko maldarekin, zeramika-lur koloreko teilarekin eta 0,30 eta 0,80 arteko teilatu-hegalarekin. Komuna egongo balitz, itxia beharko du izan, modu independentean eta uraren hornidura eta saneamendu arazoa konpondua, Udalak horretarako ematen dituen instrukzioekin bat.
5. Lizentzia emanda, arauzko tasak ordainduko dira. Ondoren eraikuntzei katastroan alta emango zaie, eta dagokien kontribuzioa kobratuko.

6. Eraikuntzak ez du bizigarritasun eskubiderik jasoko eta ezin izango da edateko ura, zabor bilketa eta saneamendurako eskubiderik eskatu.
7. Lizentziarik gabeko eraikuntzak.  
Egun dauden eraikuntza guztien inbentarioa egingo da (obrakoak) eta beren azalera neurtu, prekarioan legezatzeko arauzko tasak kobratuko zaizkie, eta baita hortik aurrera dagokion kontribuzioa ere. Eraikuntza guztietan, lizentziarekin edo gabe, obrakoak ez diren eranskinak eraitsiko dira. Txatarrak, obra-hondakinak, erabiltzen ez diren nekazaritzako tresnak eta autoak, etab. jaso beharko dira. Neurri hau herriaren inguruko etxebizitza eta baserri guztiei aplikatuko zaie. Txapa edo hondakinez egindako eraikuntzak eraitsi beharko dira.
8. Eraikuntza mota hau Altsasuko alderdi guztietan egin ahalko da, hiri antolamendurako plan orokorrean etxebizitzak, kaleak, pasealekukak, ingurabideak, sarbideak etab. egitea aurreikusten den alderdietan eta indarrean den araudiak baimentzen ez duen tokietan izan ezik.
9. Araudi hau behin betiko onesten den unetik aurrera baimenik gabe edo arauari egokitu gabe egiten diren "txabiske" motako eraikuntza guztiak eraitsiak izango dira, aldez aurretik zehapen espedientea irekita.